

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**241/2016 Foru Agindua, urriaren 5ekoa, behin betiko onartzen duena Bernedoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 8. aldaketa puntualaren espedientea, zenbait baldintzarekin**

#### I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 538/2005 Erabakiaren bidez, onartu zen hitzarmena izenpetzea Arabako Foru Aldundiaren eta Navarreteko Administrazio Batzarraren artean, A-4153 errepedearen tarte bat besterentzeko. Hitzarmen horri jarraikiz, A-4153 errepedearen tarte bat, errepede horren eta A-126 errepedearen arteko bidegurutzetik herriaren hegoaldera joateko bidearekiko elkargunera artekoa, deskatalogatu egin zen; hortaz, herriko hiri lurzuaren mugakide zen errepede zatia desafektatu zen, eta probintzia errepede izatetik herri bide izatera igaro zen.

Bigarrena. Bernedoko Udalak, 2016ko ekainaren 15eko bilkuran, hasierako onarpena ematea erabaki zuen planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari, planeamendua A-4153 errepedeko Navarrete herritik igarotzen den tartearen desafektioari egokitzearen gainekoari. Horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (77. zk.) 2016ko uztailaren 8an, El Correo egunkarian 2016ko ekainaren 29an eta udalaren iragarki taulan, eta administrazio batzarrei jakinarazi zitzaion.

Hirugarrena. Jendaurrean egon zen bitartean inongo alegaziorik aurkeztu ez zenez gero, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, 2016ko abuztuaren 31ko bilkuran.

Laugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 203/2016 Foru Aginduaren bidez, 2016ko irailaren 9ko ALHAOn (101. zk.) argitaratuta, aldeko irizpena eman zitzaion ingurumen txosten estrategikoari, 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Bernedoko Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onartu zedin. Espediente hori 2016ko irailaren 5ean sartu zen AFaren erregistro orokorrean.

#### II. OINARRIAK

Lehenengoa. Iñaki Martínez de San Vicente Velasco jaunak sustatutako espediente honek xede du Bernedoko indarreko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzea eta egokitzea A-4253 errepedearen Navarreteko tarteko antzinako zeharbidearen izaera berrira, zeina lehen aipatu bezala Arabako Foru Aldundiak eta Navarreteko Administrazio Batzarrak izenpetutako hitzarmenaren ondorio baita.

Egin nahi dena da antzinako zeharbidearen tartea ezarri zaion izaera berrira —herri bide da orain— egokitu, eta eraikinaren eta lurzatiaren itxuratik bidearen ardatzerako gutxieneko distantziak murriztu.

Gainera, aldaketaren esparruan Navarreteko 4. EU egikaritze unitatea dagoenez eta horren fitxa ez dagoenez indarreko arau subsidiarioetan sartuta, bide batez sartu egingo da eta, hartara, egikaritze unitate horren kudeaketaren arautze falta zuzenduko.

Bigarrena. Agiri teknikoak honako hauen bidez justifikatu du planeamenduko zehaztapenak bidearen izaera berrira egokitzeko aldaketa honen beharra:

– Legeztatu egingo da 6 poligonoko 730 lurzatian, antzinako zeharbidearen alboan, dagoen eraikinaren egoera, ezustean antolamendutik kanpo geratu baitzen errepidearen ardatzerako gutxieneko distantziaren parametroa betetzen ez zuelako.

– Erraztu egingo da Navarreteko 4. EU egikaritze unitatea garatzea, zeinetan zaila baita eraikitzea, dituen neurri, forma eta ezaugarriak direla eta.

– Navarreteko SAUR 1 urbanizatzeko lurzoru egokia garatzeko baldintzak egokitu egingo dira zeharbidearen izaera berrira (herri bidea).

Hirugarrena. 2016ko irailaren 16an, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak espedientearen aldeko txostena egin zuen.

Laugarrena. 2016ko irailaren 20an, Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak espedientearen aldeko txostena egin zuen.

Bosgarrena. Agiria aztertu ondoren, jotzen da aldaketaren egokitasuna eta beharra justifikatuta daudela. Izan ere, A-4153 errepidea desafektatzeak foru errepide izateari uztea dakar automatikoki, eta komeni da hori jasota geratzea kasuan kasuko planeamendu agirian.

Hala ere, badira agiri teknikoan zuzendu behar diren zenbait alde. Hauek, hain zuzen ere:

1. Indarreko arau subsidiarioetan komunikazio sistema orokor gisa sailkatuta dagoen azaleraren zati bat ez da behar beste zehaztu memorian eta planoetan. Hori zuzendu behar da, gaur egun sistema orokorra osatzen duen azalera osoaren hirigintza sailkapena erabat zehaztuta geratu dadin bai agiri idatzietan bai agiri grafikoetan.

2. Agiri grafikoetan Navarreteko 4. UE egikaritze unitaterako proposatutako antolamenduan, lurzati batek ez luke beteko SUR 4 zonako gutxieneko azaleraren parametroa. Gainera, egikaritze unitaterako egindako fitxa berriko parametro batzuk bateraezinak dira SUR 4 zonarako (egikaritze unitate hori dagoen zona) arau subsidiarioetan ezarritako antolamendu baldintzekin. Aipatutako horiek zuzendu behar dira, 4. EUrako proposatutako antolamendua eta parametroak bateragarriak izan daitezen dagokion zonako ordenantzekin, batetik, eta unitate horretan hirigintza eraldaketa egiteko aukera eman dezaten, bestetik.

3. Memoriari dagokionez, indarreko arau subsidiarioetako "Hirigintza arauak" agirian jaso beharko diren aldaketak deskribatu dira. Nolanahi ere, aldaketak eragindako araudiaren artikulua guztien testu osoa jaso beharko da, bai indarreko bertsioa bai proposatua, aldatzen, kentzen edo gehitzen diren zatiak nabarmenduta.

4. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta beterik, \*.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, \*.dwg luzapeneko fitxategietan aurkeztuko dira –\*.ctb (arkatzak) fitxategiak ere bai haiekin– edo \*.shape fitxategietan, eta testua \*.doc edo docx. luzapeneko fitxategian.

Seigarrena. Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2016ko abuztuaren 12an egindako ingurumen txosten estrategikoan gogoeta bat egin da, zeina hirigintza agirian jaso baita, dagoeneko.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Bernedoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 8. aldaketaren espediente, baldintza hauekin:

1. Indarreko arau subsidiarioetan komunikazio sistema orokor gisa sailkatuta dagoen azaleraren zati baten zehaztasun falta zuzendu behar da, gaur egun sistema orokorra osatzen duen azalera osoaren hirigintza sailkapena erabat zehaztuta geratu dadin bai agiri idatzietan bai agiri grafikoetan.

2. Navarreteko 4. UE egikaritze unitaterako proposatutako antolamendua zuzendu behar da, bai eta egikaritze unitate horretarako egindako fitxa berriko parametroak ere, batetik, bateragarriak izan daitezen dagokion SUR 4 zonako ordenantzekin eta, bestetik, unitate horretan hirigintza eraldaketa egiteko aukera eman dezaten.

3. Aldaketak eragindako araudiaren artikuluko guztien testu osoa jaso behar da memorian, bai indarreko bertsioa bai proposatua, aldatzen, kentzen edo gehitzen diren zatiak nabarmenduta.

4. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta osatuta, \*.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, \*.dwg luzapeneko fitxategietan aurkeztuko dira –\*.ctb (arkatzak) fitxategiak ere bai haiekin– edo \*.shape fitxategietan, eta testua \*.doc edo \*.docx. luzapeneko fitxategian.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientearen foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke zuzen-zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 5a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**